

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK**



IZENBURUA:

“D ereduko kirola” ikerketa ekintza
proiektua. Proiektuaren nondik norakoak

EGILEAK:

Jone Miren Hernandez (UPV-EHU) eta
Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

DATA:

2016/04/22



Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Helburuak.....	3
3. Proiektuaren ezaugarriak.....	4
4. Antolaketa.....	5
5. Proiektua garatzeko guneak.....	6



1. Sarrera

Azken urteotan Gipuzkoan eta oro har Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko egin den lan ugariaren ondorioz, gaur egun gurasoengandik euskara jasotzen ez duten haur askok -gehien-gehienek- dute euskalduntzeko aukera. “Euskalduntze” hori, kasu askotan eskolak eskaintzen duen eremu euskaldunagoari esker gertatzen da, baina gero haur horiek euskaraz sozializatzeko eta euskara hori euren eguneroko gizarte-bizitzan erabiltzeko dituzten aukerak mugatuak dira maiz.

Bide horretatik, lehenetsuneko da euskarazko sozializazio hori indartzeko modurik egokien gaineko ezagutzan aurreratzea, arlo horretan izan diren esperientziarik aurreratuenak ezagutzea eta horiek beste leku/egoera batzuetara zabaltzeko saioak egitea. Modu horretan, aukera zabaltzen da eskolak haur gehienei eskaintzen dien euskarazko oinarria eta erabilera-aukera eskolatik kanpora nola luzatu, beste esparruetara nola hedatu hobeto ezagutzeko.

Haur eta gazteen euskarazko sozializazioa indartzeko moduak eta bideak asko izan litezke. Proiektu honen kasuan aisialdia aukeratu da lanerako esparru gisa, eta aisialdiaren baitan, arlo jakin bat hautatu da: kirolarena, hain zuzen.

Izaera eta helburu bikoitzeko proiektua da honakoa, ikerketa eta ekintza bere baitan biltzen eta uztartzen dituen neurrian. Eta horrez gain eragile ezberdinen artean lankidetzan eraiki eta garatuko den proiektua da. Soziolinguistika Klusterrak eratu du proiektua Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes eta lankidetzarekin, eta bere garapenean lankidetzan arituko gara, alde batetik UPV-EHUko ikerlariak (Antropologia saila) eta bestetik alderdi praktikoen garapenean Euskalzaileen Topaguneako zein Urtxintxa Eskolako teknikariak.

2. Helburuak

Bi helburu nagusi ditu proiektuak:

1. Begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatu bat modu esperimentalean eratzea arloko eragileekin: “D ereduko kirola”.
2. “D ereduko kirol” horren eraketa-prozesuaren eta bertan parte hartzen duten eragileen ahots ezberdinen gaineko ikerketa egitea; helduena (guraso, ikastetxe, udal, klub...) eta batez ere haur eta gazteena (jardueretako partaideak zein begiraleak).

3. Proiektuaren ezaugarriak

Ondorengo lerroetan, “D ereduko kirola” proiektuak izango dituen hainbat ezaugarri deskribatzen dira:



- ✓ Proiektu honen bitartez sortuko den ezagutza teoriko-praktikoak baliagarria izan behar du **haur eta gaztetxoek euskarazko sozializazioa** eskolako eremutik kanpo indartzeko eta osatzeko. Mota ezberdinetako ezagutza sortzea aurreikusten da: ikerketa mailako interesa izango duena, eta aldi-berean kirolaren zein aisialdiaren esparruan ari direnentzat tresna praktikoen oinarri izango dena.
- ✓ Dagoeneko euskarazko aisialdia/kirola neurri batean eskaintzen den guneetan, eskaintza horri irudi sozial bat, aterpe bat eta irizpide garbi batzuk emango dizkio proiektuak: **begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango da** (eskolako D ereduan bezalatsu, beharrezko egokitzapenak eginik). Eraketa esperimentalaren oinarria begirale eta entrenatzaileen euskarazko jarduera hori ziurtatzea izango da, hori egin ahal izateko behar diren osagaiak landuz.
- ✓ Proiektuaren irizpideetako bat **erronka lorgarri**arena izango da. Proiektua garatuko den gunean aukeraketan arlo honetan tokian-toki eginda dagoen lana izango da abiapuntua, eta helburua da proiektuak balio izatea aipatutako norabidean aurrerapauso nabarmen bat emateko.
- ✓ Haur eta gazteen aisialdian eta sozializazioan kokatzen bada ere, proiektuak **helduak** ditu bereziki gogoan eta haiengan jartzen du arreta eta erantzukizuna. Helduak dira euskarazko sozializazio hori indartu edo osatzeko nahia dutenak (errealitatea aldatu) eta haiek eman behar dute pausoa. Alde horretatik, haur eta gazteen erabileran zuzenean eragiten baino, helduen aldetik euskaraz funtzionatzen duen esparru bat eskaintzea izango da proiektuaren xede nagusietako bat.
- ✓ **Konpromisoa eta eskaintza**, bi elementuok konbinatuko dira proiektuan:
 - Konpromisoa: egitasmoan sartzen diren erakundeek kirol jardueretan begiraleen jarduna euskaraz izango da (≈ hezkuntza D eredua). Eragile ezberdinen ardura eta lana izango da hori bermatu ahal izateko neurriak hartzea.
 - Eskaintza:
 - Diskurtsoa. Zergatik/nolatan kirola euskaraz?
 - Irizpideak eta aholkuak.
 - Formazioa. Gutxieneko orokorra (oinarrizko egoerak) eta hautazkoa Nola kudeatu egoera komunikatiboak erabilera errazteko (ahozkotasunetik ateratako irakaspenak).
- ✓ **Diskurtsoari dagokionez, proiektuak irudi publiko** bat sortuko du, tokian tokiko esperientzietan proiektuan sartzen diren ikastetxe, klub, elkarte eta abarrentzat, haiek baliatu ahal izango dutena.
- ✓ Proiektuak oinarri gisa baliatuko du esparru honetan eragile askoren aldetik aurrez **eginiko lana eta pilotutako ezagutza** (udaletako euskara eta kirol teknikariak, ikastetxeak, kirol eta aisialdi taldeak, ikerketak...). Bereziki kontuan hartuko dira, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Kirola eta gazteak proiektu elkartua”ren baitan bildu den ezagutza eta Euskararen Aholku Batzordeko Gazteen lantaldean garaturiko lana. Horrekin batera, baita eskola-kirola egitasmoetan norabide honetan egindako esperientzia aurreratuak edota “Begiraleek asko egin dezakete” lanaren aplikazioaren bidetik eginikoak. Era berean, arreta bereziz hartuko da kontuan, 2016ko **Udaltop jardunaldi**etan azaltzen eta lantzen diren edukiak (*Kirola D ereduan, noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?*).



- ✓ Proiektua garatzen den guneetan **eragile ezberdinekin** batera lan egingo da. Besteak beste, udalak, ikastetxeak eta kirol/aisialdi taldeak. Begirale eta entrenatzaileen jarduna euskaraz izango duen kirol-aisialdi antolatuaren eraketa eragile horien laguntzarekin garatuko da.
- ✓ Prozesua bera ikerketa-gai izango da maila ezberdinetan:
 - Eraketa prozesua: jarraitutako prozesua, parte hartzen duten eragileak eta jardun horretatik atera ditzakegun irakaspenak.
 - “Ahots” ezberdinen jasoketa
 - Haur eta gaztetxoak: Zer eskaintzen die euskarak haiei? Zein esanahi ditu haientzat halako testuinguruan euskaraz (edo gaztelaniaz) jarduteak? Zein bizipen dituzte?...
 - Begirale gazteak
 - Beste eragileak: antolatzaile, udal teknikari, guraso...
- ✓ **Haur eta gazteen ahotsa** jasotzeko lan kualitatiboa aurreikusten da. Hizkuntza-etnografia izan liteke horretarako bide emankor bat. Ahots horiek bi mailetan bereiztea aurreikusten da, batetik jardueretan parte hartzen duten haur eta gazteena, eta bestetik begirale aritzen diren gazteena.
- ✓ Ikerketa ekintza proiektuaren emaitzak bi motakoak izango dira: batetik prozesuari buruzko ezagutza, eta bestetik haur eta gazteen euskararen inguruko bizipenei eta ahotsari buruzkoa.

4. Antolaketa

Proiektua garatu ahal izateko bi batzorde eratu dira, Batzorde Teknikoa bata (proiektuaren hurbileko jarraipenaz arduratuko dena) eta Jarraipen Batzordea bestea (ildo orokorra zainduko duena). Bestalde, gorago aipatu bezala, hainbat erakunde eta adituren arteko lankidetzan garatuko da proiektua, besteak beste, honako hauek:

- Ikerlariak: Jone Miren Hernandez (UPV-EHU) (zuzendaria) eta Jaime Altuna (antropologoa) (ikerlaria)
- Egitasmoaren eraketa: Euskaltzaileen Topaguneko Aritza Escandon eta Urtxintxa Eskolako Julene Maia.
- Proiektuaren eraketa eta koordinazio orokorra: Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko teknikariak eta arduradun politikoak.
- Esperientziak garatzen diren guene eta herrietako teknikariak eta gainerako lankideak.

5. Proiektua garatzeko gueneak eta epeak

- ✓ 2016ko martxoa eta ekaina bitartean definituko da proiektua zenbat eta zein guneetan garatuko den. Hainbat elementu hartuko dira horretarako kontuan, besteak beste:
 - Zonalde edo errealtate soziolinguistiko ezberdinetakoak izatea.
 - Tokian tokiko eragileekin lankidetzarako dauden aukerak eta “erronka logarri”en ikuspegitik haiekin lortzen den definizioa.
 - Ikerketarako hautu metodologikoak, proiektuaren antolaketa eta baliabideak.



- o hainbat erakunde eta adituren arteko lankidetzan garatuko da proiektua, besteak beste, honako hauek:

- ✓ Proiektua 2016an abiatu da, hiru urterako aurreikuspenarekin (2016-2018). Lehen urrats moduan, 2016. urteko kronograma definitu da.